sanmarkos
Mankomunitatea

SAN MARKO MANKOMUNITATEKO BATZARRAREN AKTA
ACTA DE LA JUNTA DE LA MANCOMUNIDAD DE SAN MARCO

AKTA ZK./*ACTA Nº*	**289/18**
LEKUA/ *LUGAR*	San Marko Mankomunitatea Bilera aretoa *Mancomunidad de San Marcos- Sala de Reuniones* Vitoria-Gasteiz 10; Donostia-San Sebastian

EGUNA/ *DÍA*	**ORDUA/ *HORA***	**DEIALDIA/ *CONVOCATORIA***	**Deialdi eguna/ *Fecha convocatoria***
2018/05/18 *18/05/2018*	Hasiera/inicio: 12:00 Amaiera/final: 12:50	Ohikoa *Ordinaria*	2018/05/14 *14/05/2018*

BERTARATUAK				
1. KIDEAK/*VOCALES*				
UDALA/ *AYTO.*	**KIDEA/ *VOCAL***	**BERTARATUA/ *HA ASISTIDO***		**BOZKAK *VOTOS***
		BAI/SI	**EZ/NO**	
DONOSTIA SAN SEBASTIAN	Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga (EAJ-PNV) *(Mankomunitateko Lehendakaria/ Presidente de la Mancomunidad)*	X		23,5
	Miguel Angel Diez Bustos (PSE)	X		23,5
LASARTE-ORIA	Jon Antxordoki Rekondo (*Suplente de* Estitxu Alkorta Barraganen ordezkoa). (EAJ-PNV)	X		6,5
	Agustin Valdivia Calvo (PSE)		X	-
PASAIA	Lore Suarez Linazasoro (PSE)		X	-
	Nahikari Otermin (*Suplente de* Miriam Cano Puyren ordezkoa). (EAJ-PNV)	X		6,5
LEZO	Miguel Angel Sanchez Antunez (EAJ-PNV)	X		5,5
	Enrique Figueroa (*Suplente de* Jose Angel Sanchez Gallardoren ordezkoa) (EAJ-PNV)	X		5,5
URNIETA	Mikel Pagola Tolosa (EAJ-PNV)	X		5,5
	Jorge Segurado Iriondo (EAJ-PNV)	X		5,5
ASTIGARRAGA	Juan Martin Arregui Sagües (EAJ-PNV)	X		5,0
	Zorione Etxezarraga (*Suplente de* Mikel Duran Gonzaloren ordezkoa) (EAJ-PNV)	X		5,0
ERRENTERIA	Jose Cruz Legorburu (*Suplente de* Miguel María Rodriguez Barberoren ordezkoa) (Irabaziz)	X		8,5
	Bernardo Lemos Taberna (BILDU)	X		8,5
OIARTZUN	Eneritz Arbelaiz Sarasti (BILDU)	X		5,5
	Iñaki Pikabea Lasa (BILDU)	X		5,5
HERNANI	Martin Aldaya Olasagasti (BILDU)	X		6,5
	Mª Coro Echeverria Tolosa (BILDU	X		6,5
USURBIL	Irene Gartzia Palacios (BILDU)	X		5,5
	Xabier Arregi Iparragirre (BILDU)	X		5,5
2. BESTEAK/*OTROS*		**GUZTIRA *TOTAL***		**144**

IDAZKARIA/ *SECRETARIO*	Xabier Loiola Aristi	KUDEATZAILEA/ *GERENTE*	Pedro Ugartemendia Garro
KONTU-HARTZAILEA/ *INTERVENTOR*	Julian Ortiz Arruabarrena	TEKNIKARI JURIDIKOA/ *TÉCNICA JURÍDICA*	Mirari Arriola Irizar

sanmarkos
Mankomunitatea

GAI ZERRENDA	ORDEN DEL DIA
1. Aurreko bilerako akta onartzea.	1. Aprobación del acta de la reunión anterior.
2. Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.	2. Dar cuenta de las resoluciones del Presidente.
3. Mankomunitatea 138/2015 prozedura arruntean partzialki amore ematea berrestea.	3. Ratificación del allanamiento parcial de la Mancomunidad en el procedimiento ordinario 138/2015.
4. "San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko" lizitazioari buruzko kontratazio-mahaiaren osaera berrestea.	4. Ratificación de la designación de la mesa de contratación para la licitación de "la gestión de servicios del Centro de San Marcos"
5. 2017 ekitaldiko Kontu Orokorra onartzea.	5. Aprobación de la Cuenta General del ejercicio 2017.
6. 2014ko aurrekontuaren ekarpenen kalkulu berrien akordio proposamena (1626/2017 sententziaren exekuzioa - otsailaren 23ko Batzar Orokorraren akordioa).	6. Propuesta de acuerdo de recálculo de aportaciones municipales presupuesto 2014 (ejecución de la sentencia 1626/2017- Acuerdo de la Junta Ordinaria del 23 de febrero).
7. "San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko" lizitazioan A, C eta D sortak hutsik deklaratzea.	7. Declarar desiertos los lotes A, C y D de la licitación de "la gestión de servicios del Centro de San Marcos".
8. "San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko" lizitazioan, Administrazio Baldintza Berezien Agiria aldatzeko Arregi Etxabe Juan Jose, SA-ren izenean egindako eskaera ezestea.	8. Desestimación de la solicitud de Arregi Etxabe Juan Jose, SA para modificar los pliegos de cláusulas administrativas particulares de la licitación de "la gestión de servicios del Centro de San Marcos".
9. San Marko zentroko zerbitzuen amaitutako kontratuaren luzapena onartzea.	9. Aprobación de la prórroga del contrato finalizado de los servicios del centro de San Marcos.
10. Galde-eskeak.	10. Ruegos y preguntas.

1. Aurreko bilerako akta onartzea.

2018ko martxoaren 16ko bileraren akta onartu da, aldeko 125 botorekin. Aurreko bileran egon ez zirenak abstenitu egin dira (32).

Abstenitu direnak: Nahikari Otermin, Enrique Figueroa, Zorione Etxezarraga, Jose Cruz Legorburu eta Mª Coro Echeverria.

1. Aprobación del acta de la reunión anterior.

Se aprueba el acta de la sesión del 16 de marzo de 2018 con 125 votos a favor. Se han abstenido los participates que no acudieron a la sesión anterior (32).

Las abstenciones son de: Nahikari Otermin, Enrique Figueroa, Zorione Etxezarraga, Jose Cruz Legorburu y Mª Coro Echeverria.

2. Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.

Azken batzarraz geroztik lehendakariak onartutako ebazpenen berri eman zaio Batzarrari.

2. Dar cuenta de las resoluciones del Presidente.

Se ha dado cuenta a la Junta de las resoluciones aprobadas por el Presidente desde la última Junta.

3. Mankomunitatea 138/2015 prozedura arruntean partzialki amore ematea berrestea.

Lehendakariak batzarrari egin dion erabaki proposamenak honela dio:

"2015eko ekitaldiari dagokion Aurrekontuaren aurka EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako 1. Sekzioan aztertzen ari den auzia (138/2015 ohiko prozedura), berriz hasi da eta Mankomunitatea epatu zen, 2018ko apirilaren 19a aurretik ondorioen idatzia aurkez zezan.

Aurreko 2018ko otsailaren 23an Mankomunitateko Batzarrak 2016ko ekitaldiari dagokion Aurrekontuaren inguruko amore emateko harturiko erabakiarekin bat zetorrela ikusirik, Mankomunitateko estatutuetako 9. artikulua baliatuz, urgentziazko kasua zegoelako, partzialki amore emateko ebazpena eman zuen Lehendakariak, prozedura horretan.

Ebazpen hau, ordea, Batzarrak berretsi behar du.

Aurrekoa kontuan hartuta, honako **AKORDIOA** proposatzen da:

3. Ratificación del allanamiento parcial de la Mancomunidad en el procedimiento ordinario 138/2015.

La propuesta que el presidente realiza a la Junta para su aprobación, dice así:

"El litigio que se sigue ante la Sección 1ª de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco contra el Presupuesto correspondiente al ejercicio 2015 (procedimiento ordinario 138/2015) ha sido recientemente reanudado y se emplazó a esta Mancomunidad para que antes del día 19 de abril de 2018 presentara el escrito de conclusiones.

Visto que se trataba de una decisión congruente con el acuerdo de allanamiento que adoptó la Junta de la Mancomunidad el pasado 23 de febrero de 2018 respecto de la impugnación del Presupuesto correspondiente al ejercicio 2016, y que concurría la urgencia precisa, siguiendo el artículo 9 de los estatutos de la Mancomunidad, el presidente adoptó acuerdo de allanamiento parcial en dicho procedimiento.

De todas formas, ese acuerdo debe ser ratificado por la Junta.

Por todo ello, se propone el siguiente **ACUERDO**:

LEHENA: Mankomunitateak izendatutako abokatuak apirilaren 19an Auzitegiaren aurrean 138/2015 ohiko prozeduran aurkeztutako idatzia onartzea, ondorio guztietarako, eta, beraz, partzialki amore ematea onartzea.

PRIMERO: Aceptar con todos sus efectos el escrito presentado por el abogado de la Mancomunidad con fecha 19 de abril ante los Tribunales, y por consiguiente, aprobar el allanamiento parcial.

BIGARRENA: EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari jakinaraztea akordio hau."

SEGUNDO: Notificar este acuerdo a la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco."

Xabier Arregik azaldu du ez dutela parte hartu nahi bozketan eta idazkariak azaldu dio, bozkatu daitekeela, baiezkoa, ezezkoa edo abstentzioa, eta behin, gai zerrendako puntuko eztabaida hasita, bozketan parte ez hartzeak edo saiotik irtetea, abstentzio moduan hartzen da kontuan.

Xabier Arregi ha comentado que no quieren participar en la votación, y el secretario les ha informado de que se puede votar en sentido afirmativo, negativo o abstenerse y que una vez iniciado el debate del punto del orden del día el no participar en la votación o abandonar la sesión en el momento de la votación se computa como abstención.

Bozketa burututa, proposaturiko berrespena onartu da, aldeko 92 botorekin eta 52 abstentzioekin.

Realizada la votación, se ha aprobado la ratificación propuesta por 92 votos a favor y 52 abstenciones.

Aldeko 92 botoak Donostia, Pasaia, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria eta Urnietako udalerrietako ordezkarienak izan dira; abstenitutako 52 bozketatik 17 abstentzio Errenteriako udaleko ordezkariei dagozkie, gainontzeko 35 abstentzioak parte ez hartzeagatik Oiartzun, Hernani eta Usurbilgo Udaletako ordezkarienak dira.

Los 92 votos favorables han sido emitidos por los representantes de los municipios de Donostia, Pasaia, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria y Urnieta; de las 52 abstenciones 17 corresponden a los representantes del ayuntamiento de Errenteria y el resto de abstenciones (35) por no quere participar en la votación corresponden a los representantes de los ayuntamientos de Oiartzun, Hernani y Usurbil.

4. "San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko" lizitazioari buruzko kontratazio-mahaiaren osaera berrestea.

4. Ratificación de la designación de la mesa de contratación para la licitación de "la gestión de servicios del Centro de San Marcos"

Lehendakariak Batzarrari egin dion erabaki proposamenak honela dio:

La propuesta que el presidente realiza a la Junta para su aprobación, dice así:

"San Marko Mankomunitateko Batzarrak, 2018ko otsailaren 23an egindako ohiko saioan, San Marko zentroko zerbitzuen kudeaketa kontratatzeko prozedura berri baterako espedientea onartu zuen.

"La Junta de la Mancomunidad de San Marcos, en su sesión ordinaria celebrada el 23 de febrero de 2018, aprobó el expediente para un nuevo procedimiento de contratación de gestión de servicios del centro de San Marcos.

Horrela, kontratua arautuko duten agiriak, administrazio-baldintza bereziak eta teknikoak onartu ditu, baita interesatuek beren

También aprobó los pliegos de prescripciones técnicas así como el pliego de cláusulas administrativas particulares que rigen el

eskaintzak aurkez ditzaten kontratuaren iragarkia argitaratu ere.

contrato, habiéndose publicado también el anuncio del contrato a fin de que los interesados presenten sus ofertas.

Horregatik,

Por todo ello,

PROPOSATZEN DA:

SE PROPONE:

LEHENA: "San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko" lizitazioari buruzko kontratazio-mahaia izendatzea.

PRIMERO: Designar la mesa de contratación para la licitación de "la gestión de servicios del Centro de San Marcos".

BIGARRENA: Kontratazio mahai horretako kide, ondorengo hauek izendatzea:

SEGUNDO: Nombrar a los siguientes miembros de esta mesa de contratación:

Lehendakaria/ Presidente:Jaime Dominguez-Macaya
(Mankomunitateko Lehendakaria/Presidente de la Mancomunidad)

Idazkaria/Secretaria: Mirari Arriola
(Mankomunitateko zuzenbide teknikaria / Técnica jurídica de la Mancomunidad)

Bokalak/Vocales:
1. Xabier Loiola (Mankomunitateko Idazkaria/ Secretario de la Mancomunidad)
2. Julián Ortiz (Mankomunitateko Kontuhartzailea/ Interventor de la Mancomunidad)
3. Pedro Mª Ugartemendia
(Mankomunitateko zuzendari-kudeatzailea/ Director-gerente de la Mancomunidad).
4. Elena Egurrola
(Mankomunitateko ingurumeneko teknikaria/ Técnica de Medio Ambiente de la Mancomunidad).

HIRUGARRENA: Berrespena kontratazio perfilean argitaratzea."

TERCERO: Publicar en el perfil de contratante la ratificación."

Proposamena bozkatu eta aho batez onartu da.

Se procede a votar la propuesta y se aprueba por unanimidad.

5. 2017 ekitaldiko Kontu Orokorra onartzea.

5. Aprobación de la Cuenta General del ejercicio 2017.

Lehendakariak Batzarrari egin dion erabaki proposamenak honela dio:

La propuesta que el presidente realiza a la Junta para su aprobación, dice lo siguiente:

"Mankomunitateko Batzarrak, 2017ko ekainaren 6an egindako saioan behin-betikoz onartu zuen 2017ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra.

"La Junta de la Mancomunidad, en la sesión celebrada el 6 de junio de 2017, aprobó definitivamente el Presupuesto General para el ejercicio de 2017.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Lokaletako Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 62 artikuluak dioena betez, ekitaldiaren amaieran dagokion Kontu Orokorra egin behar da, eta bertan, ekonomiaren, finantzen, ondarearen eta aurrekontuaren arloetan egindako kudeaketen berri agertu behar da.

De conformidad con el Artículo 62 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de Diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, a la finalización del ejercicio contable debe formularse la correspondiente Cuenta General, en la que se pondrá de manifiesto la gestión realizada en los aspectos económico, financiero, patrimonial y

presupuestario que se hayan realizado durante el mismo.

Mankomunitateko Aurrekontuaren Kontu Orokorra eginda, Mankomunitateko Batzarrari jakinarazi behar zaio, 15 egunez jendaurrean jarri, eta, eragozpen edo oharpenik balego, ondoren, Batzarrari helarazi beharko litzaioke.

Formulada la Cuenta General del Presupuesto de la Mancomunidad, procede que sea sometida a informe de la Junta de la Mancomunidad, exposición pública por plazo de 15 días y, en su caso, posterior elevación a la Junta, si se formulasen reparos u observaciones.

Adierazitakoan oinarrituz ondorengo **AKORDIOA** hartzea proposatzen da:

En base a lo expuesto se propone la adopción del siguiente **ACUERDO**:

LEHENA: 2017ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorraren alde azaltzea.

PRIMERO: Informar favorablemente la Cuenta General del ejercicio 2017.

BIGARRENA: Aurreko kontuak jendaurrean jartzea 15 egun baliodunen epean. Aipaturiko epean inolako eragozpenik edo oharpenik ez balego, Kontu Orokorra onartutzat emango da eta ez da akordio berririk beharko, eta Herri Kontuen Euskal Auzitegiaren esku jarriko da, kanpo fiskalizaziorako, berak xedatzen duen neurri eta baldintzetan."

SEGUNDO: Someter a información pública las cuentas anteriores por plazo de 15 días hábiles. Si en el citado periodo no se formulase reparo u observación alguna, la Cuenta General se considerara aprobada sin necesidad de nuevo acuerdo y será puesta a disposición del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, para su fiscalización externa, con el alcance y condiciones que el mismo determine."

Kontuhartzaileak Kontu Orokorraren inguruko azalpenak eman ditu. Mankomunitateko kontuen egoera zuzena dela, diru sarrerak eta gastuak aurreikusi bezala gauzatu direla eta defizit, zor eta gastu erregelen irizpideak bete direla azaldu du.

El interventor explica la cuenta general. La situación de las cuentas de la Mancomunidad es correcta, los gastos se han ejecutado según las previsiones y cumpliendo los criterios de déficit, deuda y las reglas establecidas.

Proposamena bozkatu eta onartu egin da aldeko 92 botorekin eta 52 aurkakorekin.

Se procede a votar la propuesta y se aprueba con 92 votos a favor y 52 en contra.

Aldeko 92 botoak Donostia, Pasaia, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria eta Urnietako udalerrietako ordezkarienak izan dira; aurkako 52 bozkak Errenteria, Oiartzun, Hernani eta Usurbilgo Udaletako ordezkarienak dira.

Los 92 votos favorables han sido emitidos por los representantes de los municipios de Donostia, Pasaia, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria y Urnieta y los 52 votos en contra corresponden a los representantes de los ayuntamientos de Errenteria, Oiartzun, Hernani y Usurbil.

6. 2014ko aurrekontuaren ekarpenen kalkulu berrien akordio proposamena (1626/2017 sententziaren exekuzioa - otsailaren 23ko Batzar Orokorraren akordioa).

Lehendakariak Batzarrari egin dion erabaki proposamenak honela dio:

"Otsailaren 23ko Ohiko Batzarrean ondorengo erabakia hartu zen:

"BAT- Mankomunitateko zerbitzu teknikoei eta bereziki zuzendari kudeatzaileari eskatzea 211/2014 sententziak ebatzitakoaren arabera:

1- Zerbitzu bat jasotzen ez duten udalak horren kostua ez ordaintzea.

2.- Kostuak udalen artean banatzeko populazioaren irizpidea jarraitzea

2014. urteko ekarpen arrunten taula berria prestatzea urte horretan izandako benetako kostu eta sarrerak kontuan harturik

BI- Aipaturiko taula bukatzerakoan Batzar Orokorrera aurkeztea onarpena jaso eta izango dituen ondorioak ezarri daitezen."

Erabaki horretan oinarriturik, mankomunitateko zuzendari-kudeatzaileak 2018ko apirilaren 27an txosten bat egin zuen, kalkulu berriekin, eta maiatzaren 04ean, bilera ireki batean, mankomunitatea osatzen duten udaletako kontu-hartzaileei aurkeztu zitzaien.

Bilera horretan adierazi zen, kalkuluetan akats bat zegoela, (mankomunitateko kontabilitate zerbitzuen azaleratua) baina erabilitako irizpideak ez zirela aldatuko, eta azken taula entregatu zitzaien, azken kalkuluekin.

Behin kalkulu akats hori, eta beraz, azken ekarpenen taula konponduta, zuzendari-kudeatzaileak txosten berri bat izenpetu du, maiatzaren 7an.

6. Propuesta de acuerdo de recálculo de aportaciones municipales presupuesto 2014 (ejecución de la sentencia 1626/2017- Acuerdo de la Junta Ordinaria del 23 de febrero).

La propuesta que el presidente realiza a la Junta para su aprobación, dice lo siguiente:

"En la Junta Ordinaria del 23 de febrero se acordó lo siguiente:

"UNO- Solicitar a los servicios técnicos y especialmente al Director-Gerente en relación a lo dispuesto en la sentencia 211/2014:

1- Que los ayuntamientos que no reciben un servicio no abonen sus costes.

2- Repartir los costes entre los ayuntamientos en función de la población.

Prepara una nueva tabla de aportaciones ordinarias del año 2014 considerando los gastos e ingresos reales de ese año.

DOS- Una vez finalizada la mencionada tabla que se presente a la Junta General para su aprobación y se implementen sus consecuencias."

Basándose en ese acuerdo, el director-gerente de la mancomunidad realizó un informe con los nuevos cálculos el 27 de abril de 2018, el cual fue presentado, en una reunión abierta, el 04 de mayo a los interventores de los ayuntamientos que forman la Mancomunidad.

En esa reunión se informó de que había un error de cálculo en el informe, (puesto de relieve por los servicios contables de la mancomunidad) pero que los criterios utilizados no iban a variar, y se entregó la tabla de cálculos final.

Una vez subsanado el cálculo, y por consiguiente, la tabla final, el director-gerente ha vuelto a suscribir un informe nuevo, a fecha de 7 de mayo.

Bertako kalkuluak jarraituz, azken ekarpenak hauek dira:

Siguiendo los cálculos del mismo, estos son las aportaciones finales a realizar:

	Biztanleak	Aurrekontua 2014	Zerbitzuka	Doikuntza €
Donostia	186.185,00	174.977,11 €	207.191,11 €	32.214,00 €
Errenteria	39.217,00	36.856,23 €	53.856,10 €	16.999,87 €
Hernani	19.296,00	18.134,43 €	-15.454,77 €	-33.589,20 €
Lasarte-Oria	17.889,00	16.812,13 €	25.157,56 €	8.345,44 €
Pasaia	15.945,00	14.985,15 €	12.030,40 €	-2.954,75 €
Oiartzun	10.006,00	9.403,66 €	-156,03 €	-9.559,70 €
Urnieta	6.167,00	5.795,76 €	8.672,74 €	2.876,98 €
Lezo	6.028,00	5.665,13 €	-94,00 €	-5.759,13 €
Usurbil	6.062,00	5.697,08 €	2.981,57 €	-2.715,51 €
Astigaraga	4.818,00	4.527,97 €	-1.330,03 €	-5.858,00 €

2018ko maiatzaren 7ko txostena, eta, beraz, ekarpen berrien taula oinarritzat hartuz, ondorengo **AKORDIOA** proposatzen da:

En base a ese informe del 07 de mayo de 2018, y, por consiguiente, la tabla de nuevas aportaciones se propone la adopción del siguiente **ACUERDO**:

LEHENA: Txosteneko 22. orriko ekarpen berrien taula onartzea.

PRIMERO: Aprobar la nueva tabla de aportaciones incluida en la página 22 del informe.

BIGARRENA: Ahalik eta azkarren, 2014ko ekitaldiko ekarpen osagarriaren eskaera bidaltzea saldo positiboa ateratzen zaien udalei.

SEGUNDO: Enviar, a la mayor brevedad posible, la solicitud de aportación complementaria del ejercicio 2014 a los ayuntamientos con saldo positivo.

HIRUGARRENA: Behin udal zordun guziek euren ekarpen kantitate guztiak ordainduta, saldo negatiboa ateratzen zaien udalei ordainketa egitea."

TERCERO: Abonar a los ayuntamientos con saldo negativo las cantidades reflejadas una vez que todos los ayuntamientos deudores hayan abonado las aportaciones en su totalidad."

Eneritz Arbelaitzek azaldu du Oiartzunen ez dutela aztertzeko nahikoa denbora izan eta denbora gehiago behar dutela. Horregatik, hurrengo batzarrean bozkatzea eskatu du.

Eneritz Arbelaitz comenta que en el ayuntamiento de Oiartzun no han tenido suficiente tiempo para analizar la propuesta. Por consiguiente, solicita aplazar la votación de la misma hasta la siguiente junta.

Lehendakariak adierazi du, ez dagoela arazorik bozka aurreragorako uzteko. Hala ere, batzarrak erabaki behar du mahai gainean uztea hurrengo saiora arte.

El presidente dice que no hay problema para aplazar la votación. No obstante debe ser la junta la que decida si deja el tema sobre la mesa hasta la próxima sesión.

Zuzendari-kudeatzaileak gainetik informatu du zer dagoen txostenean, azalduz kontableki ez zeudela banatuta 2014ko zerbitzu denak eta lan handia egin dela ahalik eta ondoen banatzeko. Kostu eta diru-sarrera zuzenak bakarrik hartu

El director-gerente ha explicado brevemente el contenido del informe, comentado que los servicios no estaban repartidos contablemente y que realizar ese reparto ha supuesto un gran trabajo. Se han tenido en cuenta solamente los

dira kontuan, zerbitzuak populazioaren arabera udaleka banatu dira udaleka.

gastos e ingresos directos, y los servicios se han repartido según la población de cada ayuntamiento.

Eneritz Aberlaitzek proposatuta, gaia mahai gainean uztea bozkatu da jarraian, eta aho batez onartu da.

A continuación se ha procedido a votar la propuesta de Eneritz Arbelaitz para dejar encima de la mesa el tema y se ha aprobado por unanimidad.

Ikusirik 7,8 eta 9 puntuak San Marko Zentruko zerbitzuen kudeaketaren inguruko kontratazioari buruzkoak direla, eta antzeko elementu asko dituztela komunean, lehendakariak planteatu du zuzendari-kudeatzaileak esplikazio bateratu bat egitea eta, ondoren, bakoitza banaka bozkatzea.

Visto que los puntos 7, 8 y 9 son sobre la licitación del contrato de gestion de servicios del Centro de San Marcos, y tienen muchos elementos comunes el presidente plantea que el director gerente realice una explicación conjunta de los tres temas y luego se vote cada uno por separado.

Zuzendari-kudeatzaileak hitza hartu du hiru lizitazio hauen egoerari buruzko sarrera bat egiteko.

El director-gerente toma la palabra para hacer una introducción sobre situación de estas tres licitaciones.

Azaldu du martxoaren 6an amaitu zela aurreko kontratua eta lizitazio berria martxan jarri zela ordurako, 2018ko otsailaren 23ko Batzarraren akordio bidez.

Ha explicado que el anterior contrato finalizó el 6 de marzo y que para entonces se inició la licitación, según el acuerdo de la Junta del 23 de febrero de 2018.

Lizitazioan, B loterako soilik aurkeztu da eskaintza bat, FCC SA.

En la licitación solamente se ha presentado una propuesta al lote B, exactamente, la de FCC, SA.

Legeak ez du baimentzen emergentzia prozedura erabiltzea kasu hauetan, kontratua amaitu eta proposamenik aurkezten ez den bitartean, baina uzten du, funtsezko aldaketa ez bada, argitalpenik gabeko negoziatua egiteko aukera izatea, eta, bestela, aldaketak egin behar badira, przoedura ireki bidez hasi beharko litzateke. Hala ere, ikusirik kontratua amaitua dagoela eta zerbitzua ematen jarraitu behar dela, oraingo kontratua luzatzea dela irtebiderik egokiena adierazi du, egoera irregular batean aurkitzen garelako. Orain zerbitzua ematen ari den enpresa interesatua dago jarraitzearekin, azaldu zaio KPI eguneratu eta amortizazioak kenduko direla eta baldintzak onartu dituzte.

La normativa no permite utilizar el procedimiento de emergencia para estos casos, en los que el contrato haya finalizado y no haya una propuesta, pero si que permite, si no se realiza un cambio sustancial, acudir a un negociado sin publicidad. Si se realizaran cambios sustanciales, se debería de iniciar de nuevo el procedimiento con un nuevo procedimiento abierto. De todas formas, viendo que el contrato ya ha finalizado, y debemos seguir prestando el servicio, ha explicado que, la mejor solución es prorrogar el contrato existente, ante esta situación irregular. La empresa que actualmente presta el servicio está interesada en seguir, y se les ha explicado que se actualizará el IPC y se eliminarán las amortizaciones y han aceptado las condiciones.

Ondorioz, sortaka, hau da dagoen egoera:

En consecuencia de ello, esta es la situación de cada lote:

A sorta: transferentzia planta nahiz kimaketa eta lorezaintzako hondakinen harrera eta

Lote A: Gestión de planta de transferencia y recepción y almacenamiento de residuos de

biltegiratzea kudeatzea.

Zubietako planta dela eta, amaitu egingo da zerbitzua, langileak daudenez, zaila izango da lotzea aldaketarik egin gabe, bestela, irekira jo beharko dugu pleguei funtsezko aldaketa eginda. Zubietan zerbitzua eman behar dutenekin hitz egiten ari gara mankomunitatetik, langile hauen jarraipena bermatzeko. Dena den, lizitazioaren aurretik egin zen txosten juridikoaren arabera ezin dugu langileak kaleratzeak izan dezakeen gastu soziala barneratu.

poda y jardinería

Este servicio se finalizará como consecuencia de la planta de Zubieta, y debida a la situación de los trabajadores, no será facil adjudicar sin realizar modificaciones en los pliegos, por lo que seguramente habrá que realizar un cambio sustancial. Desde la mancomunidad se está intentando hablar con los que prestarán este servicio en Zubieta, para facilitar el seguimiento de estos trabajadores. De todas maneras, según el informe jurídico que se realizó antes de la licitación, no podemos asumir los costes sociales que pueda acarrear este lote.

B sorta: mantentze-lan orokorrak, lixibiatuen planta eta gasa ateratzeko sistema barne.

Honen lizitazioak aurrera egingo du aurkeztu den eskaintzarekin. Baldintzak betetzen ez badituzte, hauekin ere negoziatua edo irekia planteatu beharko da.

Lote B: Mantenimiento general, incluyendo planta de lixiviados y desgasificación.

Esta licitación se llevará a cabo con la propuesta que se ha presentado. Si se ve que no cumplen los requisitos, también, habrá que plantearse el procedimiento negociado o abierto.

C sorta: Biogasari energia balioa emateko planta kudeatzea.

Orain egiten dutenek interesa agertu dute, ez zirela aurkeztu burokrazia medio baina prozedimentu negoziatura joango liratekeela.

Lote C: Gestión de planta de valorización energética de biogás.

La empresa que actualmente presta el servicio ha mostrado su interés, que no se presentaron por toda la burocracia que supone pero que se presentarían a un procedimiento negociado.

D lotea: tamaina handiko hondakinak kudeatu eta tratatzea.

Pleguetan ezarri zen, kontratua sinatuta bertatik atera beharko zutela tamaina handikoen kudeaketa, baina Eusko Jaurlaritzako baimena behar da horretarako. Baimena dutenak, besteak bestek, Arregi ez dago ados langileen hitzarmenarekin eta ez duten batek azaldu du, baimena lortu bitarte bertan egoten utziz gero, prozedimentu negoziatura aurkeztuzko direla. Ondorioz, lizitazioan inskribatu diren guztiei bidaliko litzaieke negoziatuaren gonbidapena, eta irteera izan dezake.

Lote D: Gestión y tratamiento de voluminosos.

En el pliego se obligó a sacar la gestión del voluminoso a un pabellón una vez que se firmara el contrato, pero se necesita una autorización especial del Gobierno Vasco. Los que tienen esta autorización, entre otros, Arregi, no está conforme con el convenio colectivo actual, y unos que no tienen esta autorización han comunicado a la mancomunidad que se presentarán al procedimiento negociado, si se permite seguir en el centro mientras se consiga la autorización. Por consiguiente, se enviaría la invitación a todos los que se hayan inscrito en la licitación, y puede tener salida.

Sorta bakoitzak bere egoera duenez, esleipen aldaketak batera ematen saiatuko gara, koordinatze arren.

Como la situación de cada lote es diferente, se intentara coordinar los cambios de adjudicación de todos.

Horrela, hiru puntuak bozkatzeari ekin zaio.

Se procede a votar los tres puntos.

7. "San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko" lizitazioan A, C eta D sortak hutsik deklaratzea.

Lehendakariaren proposamenak ondorengoa dio:

"2018ko otsailaren 23ko ohiko Batzar Orokorrean, araudi armonizatuan, prozedura ireki bidez, eta ohiko izapidez, San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko kontratazio espedientea, baldintza administratibo berezien agiria eta baldintza teknikoen agiria onartu ziren.

Lizitazioaren iragarkia 2018ko otsailaren 27an bidali zen Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera (iragarkia martxoaren 1ean argitaratua) eta data berean argitaratu zen kontratugilearen profilean, eskaintzak aurkezteko azken eguna apirilaren 30a zela adierazi zen. Era berean, martxoaren 8an argitaratu zen iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Epea hori igarota, ez da eskaintzarik aurkeztu A, C eta D loteetarako.

Ikusirik idazkariaren ziurtagiria eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu bateratuak xedatutakoaren arabera, ondorengo **AKORDIOA** hartzea proposatzen da:

LEHENA. "San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko" lizitazioan A, C eta D sortak hutsik deklaratzea.

BIGARRENA. Ebazpen hau, EBAOn, Estatuko Aldizkari ofizialean eta kontratugilearen profilean argitaratzea."

Aho batez onartu da proposamena.

7. Declarar desiertos los lotes A, C y D de la licitación de "la gestión de servicios del Centro de San Marcos".

La propuesta del presidente dice lo siguiente:

"En la Junta General ordinaria del 23 de febrero de 2018 se aprobaron el expediente y los pliegos técnicos y administrativos para la adjudicación del contrato de servicio del Centro de San Marcos por regulación armonizada, procedimiento abierto y tramitación ordinaria.

Con fecha 27 de febrero de 2018 se envió el anuncio de licitación al Diario Oficial de la Unión de Europea (anuncio publicado el 1 de marzo de 2018) y se publicó el anuncio el mismo día en el perfil del contratante; se señaló que el plazo para la presentación de proposiciones finalizaba el 30 de abril. Del mismo modo, el 8 de marzo de 2018 se publicó el anuncio de licitación en el Boletín Oficial del Estado.

Terminado ese plazo, no se ha presentado ninguna oferta para los lotes A, C y D.

Visto el certificado del Secretario y de conformidad con lo establecido en el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, se propone la adopción del siguiente **ACUERDO**:

PRIMERO: Declarar desiertos los lotes A, C y D de la licitación de "la gestión de servicios del Centro de San Marcos"

SEGUNDO. Publicar esta resolución en el DOUE, en el Boletín Oficial del Estado, así como en el perfil del contratante."

La propuesta se ha aprobado por unanimidad.

8. "San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko" lizitazioan, Administrazio Baldintza Berezien Agiria aldatzeko Arregi Etxabe Juan Jose, SA-ren izenean egindako eskaera ezestea.

Lehendakariaren proposamenak ondorengoa dio:

"2018ko apirilaren 24ean, Juan Carrasco Garciak, Arregi Etxabe Juan Jose, S.A.-ren izenean, San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko kontratazioko tramite akatsak zuzentzeko eskaera egin zuen, Administrazio Baldintza Berezien Agiria (ABBA aldatzeko).

Eskaera horren arabera, C loterako izan ezik, esleipena jasotzekoa den enpresa lizitatzaileek mantendu beharko dute zentroko langileei egun aplikagarria zaien hitzarmen kolektiboa (Gipuzkoako kale garbiketa eta hondakinen bilketa).

Mankomunitateko teknikari juridikoak 2018ko apirilaren 27an egindako txostenean, eskaera hori ezestea proposatzen da (txostena gehitu zaie batzarkideei).

Horrez gain, kontuan hartuz ez dela inolako eskaintzarik aurkeztu, eta, ondorioz, prozedura amaitzen dela, ondorengo **AKORDIOA** proposatzen da:

LEHENA: Arregi Etxabe Juan Jose, S.A.-k egindako ABBA aldatzeko eskaera ezestea.

BIGARRENA: Interesatuari jakinaraztea.

HIRUGARRENA: Kontratatzaile perfilean argitaratzea."

Bozkatu egin da eta aho batez onartu da.

8. Desestimación de la solicitud de Arregi Etxabe Juan Jose, SA para modificar los pliegos de cláusulas administrativas particulares de la licitación de "la gestión de servicios del Centro de San Marcos".

La propuesta del presidente dice lo siguiente:

"El 24 de abril de 2018, Juan Carrasco García, en representación de Arregi Etxabe Juan Jose, S.A., solicitó la corrección de defectos de tramitación de los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares (PCAP) de la contratación de la gestión de servicios del Centro de San Marcos.

Según esa solicitud, salvo para el lote C, las empresas licitadoras a favor de las cuales se vaya a realizar la adjudicación deberá mantener el convenio colectivo que es actualmente de aplicación a los trabajadores del centro (limpieza viaria y recogida de residuos de Gipuzkoa).

La técnica jurídica de la Mancomunidad, mediante informe de fecha de 27 de abril de 2018 propuso desestimar esa solicitud (se adjunta informe a los junteros).

Aparte de ello, que no ha habido ninguna oferta, y que, por consiguiente, el procedimiento se finaliza, se propone el siguiente **ACUERDO:**

PRIMERO: Desestimar la solicitud de modificar los PCAP solicitado por Arregi Etxabe Juan Jose, SA.

SEGUNDO: Notificar al interesado.

TERCERO: Publicarlo en el perfil de contratante."

Se procede a votar y se aprueba por unanimidad.

9. San Marko zentroko zerbitzuen amaitutako kontratuaren luzapena onartzea.

Lehendakariaren proposamenak hau dio:

"2018ko otsailaren 23ko ohiko Batzar Orokorrean, araudi harmonizatuan, prozedura ireki bidez, eta ohiko izapidez, San Marko Zentroan zerbitzuak kudeatzeko kontratazio espedientea, baldintza administratibo berezien agiria eta baldintza teknikoen agiria onartu ziren.

Lizitazioaren iragarkia 2018ko otsailaren 27an bidali zen Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera (iragarkia martxoaren 1ean argitaratua) eta eskaintzak aurkezteko azken eguna apirilaren 30a zela adierazi zen.

C lotea, ordura arte, ELKOR enpresak kudeatzen zuen, kontratu txiki baten bitartez esleitu baitzitzaion, baina lehiaketa honetan kudeaketa osoaren barne sartzea erabaki zen. Beste hiru loteak, berriz, FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS, S.A. (FCC) enpresak kudeatzen ditu egun, 2012ko martxoaren 06an izenpetu zen kontratua eta bi luzapen egin ziren, bigarrena 2018ko martxoaren 06an amaitu zen, luzatzeko aukera gehiagorik gabe.

Ondorioz, San Marko zentroa kudeatzeko zerbitzua kontratatzeko 2018ko lehiaketa hasi eta berehala zeuden amaituta kontratuak, eta, gainera, lehiaketara aurkezteko epeak igarota, ez da eskaintzarik aurkeztu A, C eta D loteetarako.

Hori ikusirik, esleipen berriak eman bitartean, zerbitzua bermatze aldera, hartu beharreko neurriak proposatzeko, zuzendari-kudeatzaileak eta teknikari juridikoak txosten bat egin zuten maiatzaren 09ko datarekin.

Txosten horretan azaldu zen egoera irregular baten aurrean aurkitzen dela Mankomunitatea, araudiak ez duelako aurreikusten zer egin kontratua amaitu eta oraindik ezin bada esleitu. Batetik, Sektore Publikoko Kontratazioko 9/2017 legeak emergentziazko prozedura

9. Aprobación de la prórroga del contrato finalizado de los servicios del centro de San Marcos.

La propuesta del presidente dice lo siguiente:

"En la Junta General ordinaria del 23 de febrero de 2018 se aprobaron el expediente y los pliegos técnicos y administrativos para la adjudicación del contrato de servicio del Centro de San Marcos por regulación armonizada, procedimiento abierto y tramitación ordinaria.

Con fecha 27 de febrero de 2018 se envió el anuncio de licitación al Diario Oficial de la Unión de Europea (anuncio publicado el 1 de marzo de 2018) y se señaló que el plazo para la presentación de proposiciones finalizaba el 30 de abril.

Hasta entonces, el lote C lo gestionaba la empresa ELKOR, ya que le fue adjudicado a través de un contrato menor, pero en este concurso de optó por incluirlo dentro de una gestión integral. Los otros tres lotes los gestiona la empresa FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS, S.A. (FCC) en la actualidad. El contrato se firmó el 6 de marzo de 2012 y le ha procedido a prorrogarlo en dos ocasiones. La segunda finalizó el 06 de marzo de 2018 y no existe posibilidad para nuevas prórrogas.

Por consiguiente, los contratos para gestionar el centro de San Marcos finalizaron a los pocos días de haber iniciado el concurso del 2018, además, terminado el plazo de presentación de proposiciones, no se ha presentado ninguna oferta para los lotes A, C y D.

Visto lo anterior, el director-gerente de la mancomunidad y la técnica jurídica realizaron un informe el 09 de mayo, para proponer medidas para garantizar el servicio mientras se lleve a cabo una nueva adjudicación.

Se explicó en ese informe que la Mancomunidad se encuentra en una situación irregular, ya que la normativa no prevé que hacer en el caso que se finalice el contrato y no se pueda licitar. Por una parte, la Ley de Contratos del Sector Público 9/2017 no posibilita utilizar el

erabiltzea ez du aurreikusten kasu hauetarako. Bestalde, ezin da zerbitzua ematea geratu, sor ditzakeen garbitasun eta osasun arazoak medio, eta, amaitzeko, azaldu zen esleipen prozedura berri bat gauzatu bitarte, lote guztietarako egun dauden kontratuak luzatzea zela irtenbiderik egokiena.

Aurrekoa ikusirik, ondorengo **AKORDIOA** proposatzen da:

LEHENA: FCCrekin A, B eta D loteen kudeaketarako egun, mankomunitateak duen kontratuaren luzapena onartzea, Batzarrerako aurkeztu den kontratu ereduan jasotzen den moduan, kontratu berriak esleitu bitarte.

BIGARRENA: Zehaztutako baldintzetan kontratua sinatzeko lehendakariari ahalmena ematea."

Proposamena bozkatu eta aho batez onartu da.

procedimiento de emergencia en estos supuestos. Por otra parte, no se puede parar el servicio por los problemas de limpieza y salubridad que pueda acarrear, y por último, se explicó que la mejor solución, mientras se lleve a cabo una nueva licitación, era prorrogar los contratos existentes en la actualidad.

Visto lo anterior, se propone el siguiente **ACUERDO**:

PRIMERO: Aprobar la prórroga del contrato que la mancomunidad tiene firmado con FCC, para la gestión de los lotes A, B y D mientras se adjudiquen las mismas, según el contrato que se ha presentado a la Junta.

SEGUNDO: Facultar al Presidente de la Mancomunidad para la firma del contrato en las condiciones que se establecen."

Se procede a votar y se acepta por unanimidad.

10. Galde-eskeak.

Ez da galde-eskerik egon.

10. Ruegos y preguntas.

No ha habido ruegos y preguntas.

--
Akta ixtea

--
Cierre de acta

Lantzeko beste gairik izan ezean, LEHENDAKARITZAK saioa amaitutzat jo du buruan aipatutako eguneko EGUERDIKO 12:50 direnean. Bere eduki guztiarekin AKTA hau idatzi da eta LEHENDAKARITZAK nirekin, IDAZKARIA naizen honekin batera, sinatuko du. Horrez gain, nik neuk FEDE EMATEN dut.

Sin más asuntos que tratar, la PRESIDENCIA levanta la Sesión, siendo las 12:50 expresado en el encabezamiento, extendiéndose de todo su contenido la presente ACTA que firmará la PRESIDENCIA conmigo, el SECRETARIO, de que DOY FE,

EL SECRETARIO/IDAZKARIAK

EL PRESIDENTE/ LEHENDAKARIAK

sanmarko
Gasteiz, 10. 20018 Donostia
Tel 943 214 977